

BERTAN MUGI mugikorreko aplikazioaren

erabiltzaile eskuliburua



AURKIBIDEA

HIZKUNTZAK4IBILBIDE BILATZAILEA6IBILBIDE BILATZAILEA6IBILBIDEAREN INGURUKO INFORMAZIOA8ERRESERBARAKO 1. PAUSUA: EGUNA AUKERATZEA10ERRESERBARAKO 2. PAUSUA: ORDUTEGIA AUKERATZEA11ERRESERBARAKO AZKEN PAUSUA: DATUAK BETETZEA13MAPA MODUA15GELTOKIARI BURUZKO INFORMAZIOA19ZERBITZU INFORMAZIOA20NIRE PROFILA21GIDARIAREN SAIOA HASTEA23	SARRERA	3
IBILBIDE BILATZAILEA6IBILBIDE AREN INGURUKO INFORMAZIOA8ERRESERBARAKO 1. PAUSUA: EGUNA AUKERATZEA10ERRESERBARAKO 2. PAUSUA: ORDUTEGIA AUKERATZEA11ERRESERBARAKO AZKEN PAUSUA: DATUAK BETETZEA13MAPA MODUA15GELTOKIARI BURUZKO INFORMAZIOA19ZERBITZU INFORMAZIOA20NIRE PROFILA21GIDARIAREN SAIOA HASTEA23	HIZKUNTZAK	4
IBILBIDEAREN INGURUKO INFORMAZIOA	IBILBIDE BILATZAILEA	6
ERRESERBARAKO 1. PAUSUA: EGUNA AUKERATZEA	IBILBIDEAREN INGURUKO INFORMAZIOA	8
ERRESERBARAKO 2. PAUSUA: ORDUTEGIA AUKERATZEA	ERRESERBARAKO 1. PAUSUA: EGUNA AUKERATZEA	10
ERRESERBARAKO AZKEN PAUSUA: DATUAK BETETZEA	ERRESERBARAKO 2. PAUSUA: ORDUTEGIA AUKERATZEA	11
MAPA MODUA	ERRESERBARAKO AZKEN PAUSUA: DATUAK BETETZEA	13
GELTOKIARI BURUZKO INFORMAZIOA	MAPA MODUA	15
ZERBITZU INFORMAZIOA	GELTOKIARI BURUZKO INFORMAZIOA	19
NIRE PROFILA	ZERBITZU INFORMAZIOA	20
GIDARIAREN SAIOA HASTEA	NIRE PROFILA	21
	GIDARIAREN SAIOA HASTEA	23



SARRERA

Sakana Garapen Agentziak eta Sakana barnean gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteek, zegoen eskariari erantzunez BERTAN MUGI deituriko garraioaren kudeaketarako tresna sortu dute.

BERTAN MUGI-k Android eta iOS mugikorretarako aplikazioa dauka eskuragarri Google Play (Android) ata App Store (iOS) dendetan dohainik deskargatu daitekeena, baita web-orrialde bat ere ibilbideak, ordutegiak, prezioak, eserlekuak etab. bezalako eduki ezberdinak kudeatu ahal izateko.

Mugikorreko aplikazio ireki honen bitartez, aplikazioa erabiltzen duen edonork garraio zerbitzu ezberdinak ezagutu ahal izango ditu, eserlekuak erreserbatzeaz gainera.

Jarraian, aplikazioaren barnean aurkitu ditzakegun pantaila ezberdinak ikusiko ditugu hauen erabilera ulertzeko.



HIZKUNTZAK

Aplikazioa irekitzerakoan agertuko zaigun lehenengo gauza erabilgarri dauden hizkuntza guztien pantaila da.

IDIOMA
Español
Inglés
Francés
Alemán
Euskera
Estonio

Hizkuntza bat aukeratzen dugunean, goiko eskumako aldean aurrera jarraitzeko balioko digun gezi itxurako botoi bat agertuko zaigu. Aukeratu duguna izango da hemendik aurrerako informazioa erakutsiko zaizun hizkuntza, eskuragarri dagoen bitartean. Plataforma irekia denez, Europan zehar proiektura batzen diren garraio instituzio eta enpresa ezberdinek nahi duten hizkuntzak gehitu ditzakete ibilbideen informazioa zehazteko.





Behin hizkuntza aukeraturikoan, ibilbideak bilatzeko pantailara pasako gara.



IBILBIDE BILATZAILEA

Pantaila honetan gure herrialdea eta eskualdea aukeratu beharko ditugu bertan eskuragarri ditugun ibilbideak gure pantailan agertu daitezen.

Herrialdea eta eskualdea bi menu zabalgarritan aurkituko ditugu, bertan informazioa daukagun herrialdeen aukerak agertuko zaizkigu, hau da, zure herrialdea edo eskualdea ez agertzeak ez du esan nahi zure gunean garraio ibilbiderik ez dagoenik, baizik eta zerbitzua eman behar duten erantzuleek ez dutela oraindik informaziorik igo.

RESERVA TU VIAJE
País:
España 🗸 🗸
Región:
Navarra 🗸 🗸
Rutas disponibles:
Arakil - Irurtzun
Reservar en la aplicación
Llamar por teléfono
Enviar mail
www Consultar web

Behin ibilbide bat aukeratzen denean, nabarmenduta agertuko da eta beheko aldean ageri diren kontakturako botoiak gaituko dira erreserbak egin ahal izateko, horrela, erreserbak aplikazio bidez egiteaz gainera, telefonoz deitzeko, posta elektroniko bat bidaltzeko edo web-orrialdean kontsultatzeko aukera ere izango dugu, ibilbidearen erantzuleak aukera hauek gaituta baldin baditu.

Erabiltzaile eskuliburua

RESERVA TU VIAJE 🎧
País:
España 🗸 🗸
Región:
Navarra 🗸 🗸 🗸
Rutas disponibles:
Arakil-Irurtzun
Reservar en la aplicación
l Llamar por teléfono
Enviar mail
www Consultar web

Goiko eskumako aldean mapa itxurako ikono bat dago, honek <u>mapa modua</u> deituriko pantailara eramango gaitu.

Aplikazio barnean erreserba botoian klik egiten badugu, aukeratu dugun <u>ibilbidearen</u> <u>informazio pantailara</u> joango gara.



IBILBIDEAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Agertuko zaigun lehenengo gauza, bi botoi izango dira ibilbideak joan-etorriko aukera izateko kasuan.

Jarraian, ibilbide horretako geltokiak modu ordenatuan zerrendatzen dira.



Pantaila scroll formatukoa da atzamarraren laguntzaz beheko alderantz jaitsi ahal izateko, bertan menu zabalgarriak aurkituko ditugu zeintzuetan igo nahi dugun geltokia (Jatorria) eta jaitsiko garena (Helmuga) aukeratu ditzakegun. Automatikoki ibilbide horren prezioa ikusiko duzu pantailan.

Bukatzeko eserlekuak erreserbatzen hasteko botoia agertzen da.



Erabiltzaile eskuliburua

	Arakil -	Irurtzun	×
	L: 9:34 M: X: 9:34 J: V: 9:34 S: 9:30 D:		
Ó	Irurtzun		
	L: 9:39 M: X: 9:39 J: V: 9:39 S: 9:35		
	<u>D.</u>		
Preci	o del viaje		
	Origen	Destino	
Satruste	gi 🗸 🗸	Irurtzun	~
	5.4	45€	
	RESER LA APL	VAR EN ICACIÓN	



ERRESERBARAKO 1. PAUSUA: EGUNA AUKERATZEA

Erreserba bat burutzeko lehenengo urratsa garraioa erabili nahi dugun eguna aukeratzea da.

Horretarako, aukeratutako zerbitzua erabilgarri dauden egunak bakarrik ageri diren egutegi bat ikus dezakegu.

Egun batean sakatzen dugun momentuan, hurrengo pantailara pasatu ahal izango gara (JARRAITU botoia).





ERRESERBARAKO 2. PAUSUA: ORDUTEGIA AUKERATZEA

Pantaila honetan, nahi dugun ordutegia aukeratu behar dugu beti ere eskuragarri dauden aukeren artean.

Lehenengo, ordutegi guztien zerrenda bat ikusiko dugu.







Eta ordutegia aukeratzean, libre dauden eserleku guztiak bistaratuko zaizkigu. Behin abisu hori onartzen dugunean, erreserbako azken urratsera aurrera (JARRAITU botoia) egin ahal izango dugu beti ere eserlekuak eskuragarri dauden bitartean.

RESERVA TU VIAJE
PASO 2: ELIGE TU HORARIO
8:40
Plazas disponibles: 22 OK
ATRÁS
SIGUIENTE



ERRESERBARAKO AZKEN PAUSUA: DATUAK BETETZEA

Pantaila honetan, erreserbatu nahi ditugun plaza kopurua adierazi beharko dugu, horretarako eserleku kopurua handitu edo murriztu ahal izango dugu + eta – botoiak sakatuz.

Jarraian bidaiari bakoitzaren izena, adina, generoa eta telefono-zenbakia sartu beharko ditugu. Datu hauek ez dira aplikaziotik kanpo erabiliko ezta hirugarrenei utziko ere, izena eta telefono zenbakia zerbitzuaren erantzuleak erabili ahalko ditu zurekin kontaktuan jartzea beharrezkoa izanez gero, eta generoa eta adina modu anonimoan erabiliko ditugu gure zerbitzuak erabiltzen dituzuen pertsonen profila jakiteko eta zerbitzua hobetzen saiatzeko.

PASO FINA	L: RELLENA TUS DATOS
Número de pa	sajeros: 🔵 1 🛟
Pasajero 1 - N	ombre y apellido:
Nombre	
Pasajero 1 - Eo	dad:
Edad	
Pasajero 1 - Te	r Hombre
Número de tel	léfono
Resumen de la Itinerario: Origen: Destino:	a reserva Arakil - Irurtzun Satrustegi Irurtzun 1
Pasajeros: Precio: Focha:	5.45€ 6/8/2022 - 8·40





Beheko aldean erreserbaren laburpen bat agertuko zaigu eta BUKATU botoia sakatzean, dena arazo gabe gertatu den edo ez adieraziko zaigu. Hemendik aurrera, orain arte egin ditugun erreserba guztiak <u>NIRE PROFILA atalean</u> bistaratuko zaizkigu.





MAPA MODUA

Pantaila honetan, existitzen diren geltokiak mapa batean ikusiko ditugu. Hasiera batean mapa erabiltzailea dagoen tokian zentratuko da, zeina zuriz inguraturik dagoen puntu urdin batez identifikatu ahalko duzuen.

Horrela, modu erraz eta arinean ikusi ahal izango ditugu gure posiziotik gertuen aurkitzen diren geltokiak.







Atzamarrak erabiliz mapan zehar mugitu gaitezke, eta baita hurbildu eta urrundu ere atzamarren bidez handitu edo txikitzeko mugimendua eginez.

Geltoki baten gainean ere sakatu dezakegu, pantailaren beheko aldean deskripzio txiki bat duen leiho bat irekitzea eraginez.



Leiho honetan sakatzen badugu, geltokiaren informazio pantailara joango gara.



Pantailaren goiko aldeko alboetan sei botoi aurkitzen ditugu:



Hizkuntza aukeraketa pantailara itzuliko gara.



NIRE PROFILA pantailara joateko.



Garraioa mugitzen duten gidariak direnentzat dagoen gune bereizian sartzeko.



Mapako bista gu gauden tokira zentratzeko, oso erabilgarria mapan zehar mugitu bagara eta orain aurkitzen garen tokira arin bueltatu nahi badugu.



Bilatzaile bat irekiko digu pantailako goiko aldean nahi dugun geltokia idazteko, idatzi bitartean horrekin bat egiten duten aukerak eskainiko zaizkigu.







Ibilbideen bilatzaile pantailara joateko.





GELTOKIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Pantaila honetan geltokiaren inguruko informazioa aurkitzen da, bertan argazki bat ikusiko dugu geltokia zehazki identifikatzen lagunduko diguna eta baita deskripzio txiki bat ere.

Jarraian geltoki horretatik pasatzen diren ibilbideak dauzkan zerrenda bat ikusiko dugu, ibilbide horietako bat sakatzean bere <u>informazio pantailara</u> joango gara.

Bukatzeko, interesekoak izan daitezkeen bestelako zerbitzuen zerrenda bat dago. Zerbitzu horietako bat sakatzean bere <u>informazio pantaila</u> irekiko da.





ZERBITZU INFORMAZIOA

Zerbitzu batek ondorengo informazioa izan dezake, beti ere beteta aurkitzen bada:

- Irudi nagusia.
- Zerbitzuaren deskribapena.
- Kontakturako telefono zenbakia.
- Kontakturako helbide elektronikoa.
- Web-orrialdera esteka.
- Sare sozialetarako esteka.
- Nola joan ikusteko aukera, horretarako Google Maps irekiko da hasierako posizioa aurkitzen garen tokia delarik.

New Text
Taxi David Quintana
661167529 LLAMAR POR TELÉFONO
dquintana@bihartech.com
ENVIAR EMAIL
https://bihartech.com VER PÁGINA WEB
f 🔰 👩
¿CÓMO LLEGAR?



NIRE PROFILA

Atal honetan gure etorkizuneko bidaietarako egin ditugun erreserbak ikusteko gai izango gara.



Erreserba gaur bertarako egina badago ("BIDAIAREN EGOERA IKUSI") botoi bat ikusi ahal izango dugu, mapa batean gure garraioa non dagoen erakusten digun pantailara eramango gaituena, datu hau duela zenbat argitaratu den ikusi dezakegu.

Beheko aldean garraioaren erantzule den pertsonak idatzi ditzakeen mezuak agertuko zaizkigu, gertatu ahal izan den edozein intzidentziari buruz informaturik mantentzeko.





>

Erabiltzaile eskuliburua

GIDARIAREN SAIOA HASTEA

Gidari moduan saioa hasteko, beharrezkoa da ibilbideak egiteko gai diren pertsonek bakarrik dauzkaten erabiltzailea eta pasahitza sartzea.

C LOGIN	
Zona privada para los cono	luctores.
Username:	
Enter username	
Password:	
Enter password	
LOGIN	

Modu honetan sartzean ondorengo informazioa agertuko zaigu:

- Lehenengo lerroa: egin beharreko ibilbidea.
- Bigarren lerroa: zenbat denbora barru hasi behar dugun ibilbidea.
- Hirugarren lerroa: hurrengo geltokia. Ibilbidean zehar garraiora igoko edo jaitsiko ez den pertsonarik duen geltokirik izanez gero, saltatu egingo da.
- Laugarren lerroa: geltoki horretan igo eta jaitsiko diren pertsona kopurua.



Beheko aldean hurrengo pantaila irekiko digun botoi bat aurkitu dezakegu, zeinen bitartez ibilbide horretan erreserba duten erabiltzaileek ikusi ahalko duten mezu bat bidali ahalko duzun.



MENSAJE
Envía un mensaje a todas las personas que van a utilizar este transporte.
Mensaje
CANCELAR
ENVIAR

